



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2023/2024 Denboraldia


7. ZIRKULARRA

ARETO FUTBOLEKO EUSKAL KOPAKO LEHIAKETAREN ARAUAK ETA OINARRIAK

Zirkular honen bidez, argitara ematen da 2023/2024 denboraldiko Areta Futboleko Euskal Kopa antolatzeko eta garatzeko araudia.

Aipatutako arauak eta dagozkien eranskinak bildu dira.

Bilbo, 2023eko uztailaren 18a




ALLICA

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

**ARETO FUTBOLEKO EUSKAL KOPAKO
LEHIAKETAREN
ARAUAK ETA OINARRIAK
2023/2024 DENBORALDIA**





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

XEDAPEN OROKORRAK

AURREKOA. - APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDEA.

2023/2024 denboraldiko AFko Euskal Kopako autonomia-arloko lehiaketa ofizialak, bai antolaketari dagokionez, bai garapenari dagokionez, Arau Arautzaile eta Lehiaketa Oinarri hauek izango ditu, Euskal Futbol Federazioaren (aurrerantzean EFF-FVF) antolamendu juridiko federatiboa osatzen duten gainerako arauetan xedatutakoari kalterik egin gabe.

EFF-FVFK beretzat gordeko du eskubidea, bere eskumeneko beharrezko aldaketak egiteko, edo, hala badagokio, organo eskudunari proposatzeko eta arau arautzaile eta lehiaketaren oinarri hauek interpretatzeko.

LEHENA. - LEHIAKETAREN TITULARTASUNA ETA SAILKAPENA.

Areto Futboleko Euskal Kopa autonomia-arloko afizionatuen lehiaketa ofiziala da, eta EFF-FVFK haren titulartasun eskusiboa du.

BIGARRENA. - EGUTEGIA.

Lehiaketa egutegi ofizialaren arabera egingo da, eta egutegi hori zirkular honi lotuko zaio, **1. eranskin** gisa.

HIRUGARRENA. – PARTE-HARTZAILEAK

A) BIGARREN B MAILA (2)

Auzoak de Zierbena eta Otxartabe C.D.

B) HIRUGARREN MAILA (10)

Afantxo Fútbol Kluba, Albardero de Rivabellosa, Antiguoko K.E., Aerolink Elorrietako, Donipari F.T Gernikako Lagunak C.D., Gora C.D., Jarrilleros C.D.F., Kukuyaga F.C. eta UFS Usansolo C.D.

C) EUSKAL LIGA (

Aguraingo Oriamendi, Artarromo Getxo C.D.F., Beti Araba D13, Elorrioko F.K.E., Hamaikak Guk 13 Amurrio, Hegalariak C.D., Ibaialde Salburu, Lagun



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Onak CDA, Lauburu Ibarra KE, Martutene K.E., Santurtzi C.F., Sasikoa C.D. eta Soloarte C.F.

LAUGARRENA. - TALDEKAKO LIZENTZIEN KOPURUA.

Areto Futboleko Euskal Kopako klubek gehienez ere jokalarientzako 15 lizentzia lortu ahal izango dituzte.

BOSTGARRENA. - JOKO-ARAUAK.

Partidak eta lehiaketa, betiere, International Football Association Board-en (IFAB) Joko Arauen arabera jokatuko dira.

SEIGARRENA. - BALOI OFIZIALA.

Areto Futboleko Euskal Kopako Txapelketan eta haren hurrengo faseetan egiten diren partidetan, nahitaez jokatu beharko da lehiaketako baloi ofizialarekin, hau da, ERREA markako HURAN HYBRID modeloarekin.

ZAZPIGARRENA. - UNIFORMEAK.

1. Futbolarien uniformeek Erregelamendu Orokorrean horretarako jasotako xedapenak bete beharko dituzte, eta gutxienez bi eta gehienez hiru izan beharko dute; eta EFF-FVFri jakinarazi beharko zaizkio kirol-denboraldi bakoitzeko lehiaketa ofizialeko lehen partida izan baino hamabost egun lehenago gutxienez.
2. Klubek lehen uniforme ofizialarekin jokatu beharko dute. Lehiatzen diren bi taldeetako uniformeak oso berdintsuak edo antzekoak badira eta horrek nahasmena eragiten badu, aurkako zelaian jokatzen duenak berea aldatuko du, arbitroak hala eskatzen badu; eta partida eremu neutralean jokatzen bada, EFF-FVFko afiliazio modernoena duen taldeak aldatu beharko du.
3. Aurreko paragrafoan ezarritako ondorioetarako, klubek behar diren neurriak hartu beharko dituzte joan-etorrietan, uniformeak aldatu behar badira, eta, beraz, **bi ekipamendu eraman beharko dituzte nahitaez.**

ZORTZIGARRENA. - JARDUNALDIA ETA ORDUTEGIAK.

- a) Partidak egutegi ofizialean ezarritako egunetan jokatuko dira, Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa eta EFF-FVFk erabakitzen duenari kalterik egin gabe.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- b) Partidak igandean jokatu beharko dira, tokiko taldeak ezartzen duenaren arabera. Hala ere, EFF-FVFK erabaki du klubek partida larunbatera aurreratzeko aukera izango dutela, 15:30etik 20:30era bitartean, talde aurkariaren adostasunik gabe.
- c) Halaber, igandeetarako ordutegi-tarte bat ezarri da, eta tarte horretan hasi beharko dira partidak, 10:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 18:00etara, klubak ados jarri ezean.
- d) Partidak lanegunetan egiten direnean, klub antolatzaileek 19:30etik 20:30era bitartean finkatuko dute hasteko ordua. Kluben batek ordutegia aldatu nahi badu, aurkariaren baimena beharko du, eta hark idatziz adieraziko du.
- e) Klubek EFF-FVFri eta aurka egiten duen taldeari jakinarazi beharko diete partidaren ordutegia, gutxienez, partida hasi baino zazpi egun lehenago, horretarako EFF-FVFren intranetean jarritako pasabidearen bidez edo, bestela, posta elektronikoz, helbide honetara idatzita: futbolsala@euskadifutbol.eus

BEDERATZIGARRENA. - JOKO-EREMUA ETA INSTALAZIOAK

Euskal Ligako Lehiaketaren instalazioei dagokienez, klubek EFF-FVFri jakinarazi beharko dizkiote, lehiaketa hasi baino hamabost egun lehenago gutxienez, egoera, neurriak, azalera-mota eta jokaleku alternatibo bat. Instalazio guztiek Erregelamendu Orokorreko 71. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa bete beharko dute.

HAMARGARRENA. - FUTBOLARIEN ZERRENDA

1. Partida hasi baino lehen, talde bakoitzeko futbolari titularren eta aldi baterako ordezkoen zerrenda eman beharko zaio arbitroari, baita aulkian jar daitezkeen teknikarien zerrenda ere.
2. Partida bat hasi ahal izateko, talde bakoitzak gutxienez 5 jokalarirekin agertu beharko du, eta horietatik gutxienez hiru jokalaria taldea dagoen kategoriako plantillakoak izango dira.

3. Gehienez 14 jokalarik eman dezakete izena aktan.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

4. Menpeko taldeetatik edo talde filialetatik datozen jokalariaik, Erregelamendu Orokorreko 14. eta 19. artikuluen arabera, futbolari titularren edo ordezkoen zerrendan sar badaitezke, esku hartuko duten taldeko jokalarientzat erregelamenduz ezarritako epean inskribatu beharko dira.
5. Denboraldian zehar nagusi edo babesle nagusian parte hartzeko aukera bertan behera geldituko da, baldin eta jokalariaik, goikoak izena emanda egon arren, bertan baja eman badu eta behekoak denboraldi berean izena eman badu.
6. Futbolarien zerrenda ez da inoiz Erregelamendu Orokorreko 86. artikuluan xedatutakoaren aurkakoa izango.

HAMAIKAGARRENA: - ORDEZKOAK ETA ORDEZKAPENAK.

Bertan diren jokalariaik bakarrik jasoko dira aktan. Horretarako, arbitroak partida hasi dela jo ondoren aktan agertzen ez diren jokalariek ezin izango dute partidan parte hartu.

Beroketa-ariketak horretarako adierazitako tokian egingo dira, arbitroek partida hasi aurretik adierazitako baldintzetan.

HAMABIGARRENA. - PUBLIZITATEA.

Partida hasteko adierazitako ordutik aurrera, ezin izango da inolako publizitaterik erakutsi arlo teknikoan, ez eta jokalekuan, banda-marratik edo helmuga-marratik kanporantz metro batera ere, ez ateen markoetan eta sareetan, ezta kórnerren banderatxoetan ere. Ondorio horietarako, jokalekua hau da: bera osatzen duen laukizuzenaren guztizkoa, ateen albokoak barne.

HAMAHIRUGARRENA. - ENTRENATZAILEAK.

Kategoria honetan parte hartzen duten klubek "MOS" lizentzia duen begirale bat aurkeztu beharko dute gutxienez partida guztietan. Hala ere, "ES" lizentzia aurkeztu ahal izango dute, kirol-teknikariaren 1. ikastaroko edo lehen mailako gutxieneko titulazioarekin.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, entrenatzaileak/ begiraleak bere taldeak edozein lehiaketatan jokatzeko dituen partidetan egon beharko du, hala agertuko da dagokion aktan, eta bere postua beteko du aulkian partidan zehar.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

HAMALAU GARRENA. - ORDEZKARIAK.

Gogorarazten da beharrezkoa dela gutxienez taldeko ordezkari bat izatea, kategorian tramitatutako federazio-lizentziarekin.

Tokiko ekipoetan ere nahitaezkoa da pistako ordezkari bat izatea, behar bezala identifikatuta eta arbitraje-bikotearen eskura.

HAMABOST GARRENA. - ARBITRAJEA.

Arbitroen izendapenari eta arbitroen ordainsariei buruzko alderdiei dagokienez, RFEFen Erregelamendu Orokorrean eta Areto Futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoak eta organo eskudunak hartutako erabakietan xedatutakoari jarraituko zaio, hala badagokio.

EFF-FVFK 2022/23 denboraldirako onartu duen tarifa 70 €-ko ordainagiri bakarra da (arbitroa + kronoa) 1go eta 2. jardunaldietarako, eta 100 €-koa 3. jardunalditik aurrera (2 arbitro + kronoa). Taldeak lurralde berekoak direnean, ekipo bakoitzaren %50 ordainduko da, eta lurralde berekoak direnean etxeakoak ordainduko du ordainagiri osoa.

Zenbateko horretan kontzeptu guztiak sartzen dira, bai arbitraje-eskubideak, bai arbitraje hirukotearen dietak eta bidaia-gastuak. Ordainagiri hori jokalekuaren titularrak ordaindu beharko du.

Ordainketa banku-transferentziaren bidez egingo da, Areto Futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoak prestatzen duen kontuan, jakinarazten diren epeetan.

HAMASEI GARRENA. – DIZIPLINA-ARAUDIA.

Lehiaketa hau Euskal Futbol Federazioaren Diziiplina Araudiaren arabera arautuko da eta diren gorabeherak Euskal Futbol Federazioaren Diziiplina eta Apelazio Batzordeek ebatziko dituzte.

HAMAZAZPI GARRENA. - ESKUERAKUTSIK ETA OMENALDIK EGITEA

Denboraldi honetarako zirkularraren arabera, eskurakutsiak, omenaldiak edo sariak emateko ekintzak EFF-FVFK baimendu beharko ditu, partida jokatu baino




EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

72 ordu lehenago gehienez ere. EFF-FVFri bakarrik eskatu beharko zaio baimena, honako egintza hauetako bat egin behar denean:

- a) Minutu bateko isilunea gorde eta/edo besoko beltzak eraman kamisetan. Errespetuzko omenaldia eragiten duen heriotza aurreikusitako epetik kanpo gertatzen bada, ez da beharrezkoa izango EFF-FVFn baimena, eta omenaldia egin nahi duen taldeko ordezkariak horren berri eman beharko dio arbitroari, instalaziora iristean, partida egiteko behar diren neurriak har ditzan.
- b) Ohorezko sakeak.
- c) Trofeoak ematen direnean, partida hasi baino zazpi minutu lehenago bukatu beharko dute.
- d) Klubak zaleei, oinarrizko futbol-taldeei eta bestelakoei egin nahi dizkien omenaldiak: ekitaldi horiek partida hasi baino zazpi minutu lehenago bukatu beharko dira.

EFF-FVFn ahalmen eksklusiboa izango du euskal futbol osoaren edo kategoria eta/edo lehiaketa jakin baten izenean ekitaldiak adosteko.





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL


XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA.- GENEROARI BURUZKO AIPAMENA LEHIAKETAKO ARAU ETA OINARRIETAN.

Zirkular honetan gizonezkoei buruz egiten den aipamen oro -arbitroei, jokalariei edo beste parte-hartzaile batzuei- gizonezkoei eta emakumezkoei dagokie era berean, eta irakurketa erraztea du xede.

BIGARRENA.- 16/17 DENBORALDIAN ADINGABEEI BURUZKO RFEF-REN 42. ZIRKULARRA NAHITAEZ BETE BEHARRA.

Adingabearen Babes Juridikoaren Legeari buruzko egungo araudia nahitaez bete behar denez, eta eragin diezaikeen guztiei horren berri emateko, gogorarazten da 16/17 denboraldiko RFEFren 42. zirkularra nahitaez bete behar dela. Zirkularrean, adingabeekin ohiko harremanak dituzten lanbide, ogibide eta jardueretan sartzeko eta horietan aritzeko baldintzak jakinarazten dira.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

ARETO FUTBOLEKO EUSKAL KOPAKO LEHIAKETAREN OINARRIAK

LEHENENGOA. - PARTE HARTZEN DUTEN TALDEAK.

Areto Futboleko Euskal Kopako taldea 23 klubek osatzen dute, liga erregularrean duten kategoriaren arabera hiru azpimultzotan banatuta. Talde eta multzo horiek hirugarren puntuak agertzen dira.

BIGARRENA. - LEHIAKETA-SISTEMA.

Lehiaketa hiru faseetan garatuko da.

I. Lehenengo fasea

Hiru jardunaldi hauek ditu:

1. jardunaldia (1go kanporaketa): C Multzoko kideen artean zozketa egingo da lurraldeka, hiru salbuespenekin, kanporaketa partida bakarrera jokatzeko.

- Zozketa 2023/07/17
- Jolastu 2022/09/17

2. jardunaldia (2. Kanporaketa) 1. jardunaldian sailkatutako taldeek, bertan salbuesitako 3 taldeekin batera, beste kanporaketa bat jokatu dute partida bakarrera.

- Zozketa 2023/09/20
- Jolastu 2023/10/12

3. jardunaldia (3. Kanporaketa) B+C Multzo bat osatuko da, lehen zozketa egingo da Multzo horretako eta A multzoko taldeen artean, eta bigarren zozketa B+C multzoko gainerako taldeen artean. Partidak jolastuko dira maila beheerako taldeen etxean.

- Zozketa: 2023/10/16
- Jolastu: 2023/11/01

II. Bigarren fasea



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

4. jardunaldia (Final laurdenak) Zozketa hutsa aurreko kanporaketatik ateratako taldeen artean. Maila txikieneko taldeak jardungo du tokiko talde gisa.


- Zozketa: 2023/11/08
- Jolastu: 2024/01/10

III. Azken fasea.

Final-laurdenetako irabazleek jokatuko dute egoitza bakarrean. baldintzarik gabeko zozketa

Finalerdi eta finala. Data: 2024ko apirilak 23 eta 24

Finalerdi eta finaleko neurketetan, beharrezkoa balitz berdinketa kasuan, luzapena jokatu eta jaurtiketak (5) egingo dira penalti puntutik, talde irabazlea zein den erabakitzeko.






EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

ERANSKINA

1. ZENBAKIA





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGAREN EGUTEGIA
2023/24 DENBORALDIA

<u>23-Ira.</u>		<u>23-Urr.</u>		<u>23-Aza.</u>		<u>24-Urt.</u>		<u>24-Mar.</u>	
EUSKAL K.		EUSKAL K.		EUSKAL K.		EUSKAL K.		EUSKAL K.	
17	1J	12	2J	01	3J	10	4J	23	Finalaurre
								24	Finala

